



PILARTXO ETXEBERRIAK atzoko hitzaldian adierazi zuenez, euskarari ikusten dizkion premiei erantzuna ematen saiatu da Txillardegiri (argazkian entzuleen artean) hizkuntzalaritzaren arloan egin dituen lanetan, eta aitzindaritzat jo daiteke arlo eta zeregin askotan. JUAN CARLOS RUIZ/ARGAZKI PRESS

EUSKARAREN ZERBITZARI

Hizkuntzalaritzan Txillardegik ikerketarako ildoak zabaldu dituela oroitu du Pilartxo Etxeberriak

JUAN LUIS ZABALA - DONOSTIA

Aurreko egunetan literatur lanak eta pentsaera politikoa aztertutik ondoren, Txillardegik hizkuntzalaritza arloan egindako lana izan zen mintzagai atzo Txillardegiri, 75 urte euskararen aldeko borrokan jardunaldietako azken egunean. Pilartxo Etxeberria irakasleak egin zuen hitzaldia, eta hasieratik ohartarazi zuen Txillardegik hizkuntza «bere inmanentziatik hartuta» aztertuz eta jorratuz egindako ekarpena izango zuela hizpide; alde batera utziko zituela, beraz, soziolinguistikako kontuak, nahiz eta arlo horretan ere lan asko duen egina Txillardegik, oso lan eraginkorra gainera.

Txillardegik hizkuntzalaritza arloan egin duen ibilbidean, «halako koherentzia bat» ikusten du Pilartxo Etxeberriak, eta baita «behin eta berriro ageri diren ideiak» ere.

Hizkuntzalaritza arloko aurreko lanetan, 50eko hamar-

kadan, «gerora ikerketa lerroak zabaldu dituzten gogoetak» plazaratu zituen Txillardegik; «profetiko» agertu zen. «Hizkuntzaren osasunaz eta egoera larriaz mintzatu zenean, adibidez. Hurrengo urteetan, unibertsitatean gai horren inguruan hainbat lan eta tesi egin dira».

Garai hartan arrakasta handia zuten mito faltu batzuk hausteke, lan handia egin zuen Txillardegik: hala euskara hizkuntza garbia dela dioen mitoa nola euskarak, zibilizazio hizkuntza ez denez, etxetik kanpoko jarduntararako baliorik ez duela dioena, adibidez.

Terminologia kontuei buruz ere, hasieratik egin zuen ekarpenik. «Garbi adierazi zuen ezin dela, zabarkeriaz, kanpoko edozein hitz hartu», ekarri zuen gogora Etxeberriak. «Baina aldi berean mendeen poderioz euskarara egokitutako mailegu zaharren alde agertu zen. Garai hartan ez zen erraza horiek euskal hitzak zirela esatea».

Federico Krutwig eta Luis Villasanten eraginez, euskara idatziaren batasunerako bidean parte hartzen hasi zen Txillardegiri 50eko hamarkadako azken urteetan. «Batasunerako bidean egin beharreko urrats batzuk aurkeztu zituen, 1958an, Euskaltzaindiak Bilbon egindako biltzarrean: literatur euskalkiak eta herri euskalkiak bereizi zituen lan hartan: literatur euskalkiak Euskal Herri osorako dira, komunikabideetan, liburuetan eta gisakoetan erabiltzekoak; herri euskalkiak, aldiz, tokian tokiko argitalpen eta ekitaldietarakoak».

PILARTXO ETXEBERRIA

(Irakaslea)

«Hizkuntzalaritzako bere ibilbidean, koherentzia dago, eta behin eta berriz ageri diren ideiak»

Deklinabidea aztertzean, Txillardegik oso garrantzi handia eman zion, garai hartan, mugagabearen erabilera egokiari. «Mugagabeak gaur egun hartu duen aizkorakada ikusita, garai hartan hori esatea profetikoa iruditzen zait», komentatu zuen Etxeberriak.

Batasunari zegozkiez erabakiak zabaldu eta sozializatzearen inguruko kezka ere izan zuen Txillardegik. «Kezka horrek eraginda idatzi zituen», Etxeberriaren ustez, «*Sustrai bila, Euskara batua zertan den* eta beste liburu batzuk. Oihartzun handiko liburuak dira, oso erabiliak irakasleentzat eta alfabetatze munduan. Euskaltzaindiaren erabakien sozializazioa Txillardegiren behin eta berriz agertzen den kezka da».

Idatzizko batasunaren oinarriak finkatuta ikusi orduko, ahoskera batuaren inguruko kezka nagusitu zen Txillardegiren. *Euskal fonologia* (1980) eta *Euskal azentuaz* (1984) libu-

ruak horren isla zuzenak dira. «Mugarriak» dira bi liburu horiek, Etxeberriaren ustez. «Irakaskuntzarako liburugintzan aitzindari izateaz gain —eta oso lan pedagogikoak—, ekarpen handiak egin zituzten. *Euskal fonologia*-n, euskara batuaren ahoskerari dagokion oinarria jartzeko fonologia sortzailearen erregela bidezko formalizazioa egin zuen lehen aldiz».

Ahoskeraren arloan, gaztelaniaren eragina Hegoaldeko euskararen eta frantsesarena Iparraldekoan gero eta handiagoa dela ohartarazi zuen Txillardegik.

Prosodiaren arloa inor gutxi bezala landu du Txillardegik. «Lehena da bokal harmonia, silaba egitura eta erritmo unitateak prosodiaren argitan aztertzen».

Erdalduntzearen aurka, ahoskeran nahiz prosodian

Hizkuntzalaritzako beste arloetan egindako ikerketek bezala, Txillardegiren kasuan, berak sumatutako premia bati erantzuten diote ahoskeraren eta prosodiaren arloko ikerketek ere, Etxeberriak atzo esan zuenez. «Gure ahoskera eta gure prosodia gehiegi erdalduntzen ari direla ikusirik, ikerketa horiek egiteko garaia dela iruditu izan zaio beti, Euskaltzaindiak behingoz eman ditzan arauak». 1993an sortu zuen Euskaltzaindiak Ahoskera Batzordea, eta 1998an eman zuen *Euskara batuaren ahoskera zaindua* izeneko arau multzoa.

Egun, beste arlo batzuetako zereginak ahaztu gabe —astronomiakoak, esaterako—, bertolarien jardunean oinarrituta, ikerketa fonetiko eta fonologikoak egiten ari da Txillardegik. «Lanean jarraitzen du, bere gustuko gaietan, eta hori pozgarria da», esan zuen Etxeberriak.

«Txillardegik ikerketarako ildo asko zabaldu ditu, eta ildo horietan egiten ari dira lanak», komentatu zuen Etxeberriak hitzaldiaren amaieran. «Baina ondorioz ez da batera baikorra. Aurera begira, ikerketak ikerketa, nahitasunek eta herritarren inplikazioak bakarrik ez dute salbatuko euskara biziaren eta erabileraren auzia. Ezinbestekoa da neurri politikoa azkar eta zorroztak hartzea, bestelagurek egin du, prosodia eta horrelako konfuetan behintzat. Hizkuntz politikak egiten dira, baina betetzen ez badira ez dute ezertarako balio. Horretarako, lehenik eta behin sinestu egin behar da; gero nahi izan behar da; eta, horretaz gain, egiaz betearazituz den hizkuntz politikari jarri behar da abian».